

Antoine de Saint-Exupéry

# Printze Txikia



Javier Alcázar Colillaren egokitzapena

Joaquín Porcarren ilustrazioak



## Material didaktikoak IRAKURLEAREN DOSSIERRA

Lehenengo argitalpena: 2019ko otsaila

Materialen idazleak: M. Àngels Sellés Pons eta Mercè Sendrós Farré  
Diseinua eta maketazioa: Adapta Editorial

Adapta Editorial  
Cuba kalea, 18, solairuartea  
08030 Bartzelona  
[www.adaptaeditorial.com](http://www.adaptaeditorial.com)

© Adapta Editorial (Zigilua Ferro Publicaciones Editoriales S.L.-rena da), 2019

## IRAKURTZEN DEN BITARTEAN EGITEKO JARDUERAK

### ARGUMENTUAREN ATALA: SARRERA

7. orrialdetik 9. orrialdera: “Antoine de Saint-Exupéryri buruz”, “*Printze Txikiari buruz*”



1. Irakur ezazu 7. orrialdetik 9. orrialdera.

Bertan idazlearen eta bere liburuaren, *Printze Txikiaren*, ezaugarriak nabarmenenak aurkituko dituzu. Ondoren, azpimarra ezazu erantzun zuzena.

a) Antoine de Saint-Exupéry frantsesa zen, eta hemen jaio zen:

Paris  
Marseilla  
Lyon

b) *Printze Txikiaren* idazleak hurrengo lanbideak izan zituen:

Sendagilea eta Pilotua  
Pilotua eta Marrazkilaria  
Idazlea eta Pilotua

c) Antoine de Saint-Exupéryk hainbat erreportaje idatzi zituen hauei buruz:

Vietnam eta Errusia  
Moda eta Etxea  
Kirolak eta Politika

d) Non idatzi zen *Printze Txikia*?

Frantzian, 1946. urtean  
Estatu Batuetan, 1942. urtean  
Espainian, 1943. urtean

2. Bila ezazu Antoine de Saint-Exupéryri buruz informazio gehiago. Jaso itzazu argazki, idatzi eta esaldi famatuak, eta horma-irudi bat diseina ezazu ikasgelan zintzilikatzeko. Eredu hau jarrai dezakezu:

Izen osoa:

Jaiotze data eta tokia:

Hiltze data eta tokia:

Lanbidea:

Bere lanik ezagunena idatzi zuen urtea:

Idazleak idatzitako beste liburuak:

## ARGUMENTUAREN ATALA: PLANTEAMENDUA

1. kapitulutik 9. kapitulura (13. orrialdetik 50. orrialdera):



1. Irakur ezazu 13. orrialdetik 50. orrialdera.  
Irakurri ondoren, aurki itzazu hizki zopan irakurketarekin lotuta dauden lau hitz:

B	O	S	Q	U	I	F	L	O	R	F
A	E	U	A	P	L	A	N	E	T	A
C	T	R	U	V	L	M	U	N	Y	N
I	D	D	E	S	I	E	R	T	O	C
S	U	C	B	I	V	O	M	O	E	A
A	X	V	K	L	D	L	N	G	U	N


# Printze Txikia

2. 20. orrialdean, Printze Txikiak dio: «Hori ez da arkumea, ahari bat da». Hiztegiaren laguntzarekin, arkume eta ahari hitzen esanahia idatz ezazu.

Ahari: .....

Arkume: .....

Ausar zaitetz hauek marraztera:



--	--

3. X batekin adieraz itzazu zuzenak diren baieztapenak.

- Elefante bat jan zuen boa sugearen marrazkia ez zitzaion inori gustatzen.
- Antoine de Saint Exupéryk bere hegazkina konpondu behar izan zuen basamortuan eta han lagundu zion haur bat aurkitu zuen.
- Printze Txikiak ahari baten marrazkia nahi zuen.
- Printze Txikia haur bat zen, oso txikia zen planeta batean bizi zena: "Asteroide B-613".
- Printze Txikiak asko zaintzen zuen bere planeta.
- Printze Txikiak amodio handi bat utzi zuen bere planetan.
- Printze Txikiak bere planeta utzi zuenean hegan egin zuen.

4. 27. orrialdean, heldu askok pertsonak haien itxura fisikoagatik epaitzen dituztela ulertzen da.

Idatz ezazu ideia hau adierazten duen paragrafoa:



# Printze Txikia

## ARGUMENTUAREN ATALA: KORAPILOA

10. kapitulutik 23. kapitulura (51. orrialdetik 97. orrialdera):



1. Irakur ezazu 51. orrialdetik 97. orrialdera. Irakurketan zehar, Printze Txikiak bidaiatzen duen bitartean aurkitzen dituen planetak bisitatzea erabaki du. Planeta hauetan pertsonaia ezberdinekin esperientziak bizi ditu eta pertsona mota ezberdinak daudela konturatzen da. (Adibidez: harroputza, erregea, etab.). Idatz ezazu bisitatu dituen bost lehenengo planeten pertsonaiak nolakoak diren definitzen duen esaldia.



Printze Txikia eta haren bisitak		
Planeta	Pertsonaia	Haren izaera definitzen duen esaldia

# Printze Txikia

2. Liburu honetan, ilustrazioak bikainak dira.  
78. orrialdeko marrazkia begiratu ondoren,  
aditzera ematen dizunaren deskribapena egin ezazu:



3. Erlaziona itzazu pertsonaiak hoberen definitzen dituzten balio bakoitzarekin. X batekin adieraz ezazu:



Balioak	Erregea	Harroputza	Mozkorra	Pilotua	Lorea	Farolaria	Geografoa	Azeria
Mirespena								
Laguntasuna								
Maitasuna								
Iraunkortasuna								
Errespetua								
Jakinduria								
Ausardia								
Lotsa								

# Printze Txikia

**4.** Presta ezazue bikoteka antzeppen txiki bat.

Aukera ezazue Printze Txikiak planetetan zehar egindako bidaietan gehien harritu zaituzten pertsonaia.

Idatz itzazue aukeratutako pertsonaiaren eta Printze Txikiaren arteko elkarrizketak.

Buruz ikas itzazue eta ondoren eszena antzez dezakezue.

Izenburu bat jartzera ausartzen al zara?

**5.** Printze Txikiak pilotuari azaltzen dio nolakoa zen bere planeta.

Planeta hau deskribatuko duzu, egiazkoak diren baieztapenetan E jarritz eta gezurrezkoak direnetan G jarritz:

- Printze Txikiaren planeta oso txikia zen.
- Ez zegoen zuhaitzik, belar txarrak bakarrik.
- Bere planetan ilunabarrak oso ederrak ziren, egun batean 40 ikusten ziren.
- Lore oso ederra zegoen, oso ondo usaintzen zuena, baina bere burua babesteko zurtoinean arantzak zituen.
- Hiru sumendi txiki zeuden, piztuta zeudenak.
- Haizea egiten zuen eta gauez airea oso freskoa zen.
- Ez zegoen animaliarik.



## ARGUMENTUAREN ATALA: AMAIERA

24. kapitulutik 27. kapitulura (99. orrialdetik 115. orrialdera):

1. Irakurketan zehar, Printze Txikiak gauza asko kontatu ditu bere bizitza eta planetari buruz. Orain, pilotua da Printze Txikiarekin basamortuan bizi izan zuen historia kontatzen duena. Antola itzazu hurrengo esaldiak eta idatz ezazu testua zentzuarekin.

Printze Txikiak tratu bat egin zuen sugearekin.	
Pilotuak hegazkina konpondu zuen eta etxera itzuli zen. Denak pozik zeuden baina pilotua ez.	
Pilotu batek hegazkinean matxura bat izan zuen eta basamortuan lurreratu behar izan zuen. Han, haur bat agertu zen.	
Pilotua hain triste zegoen sei urte pasa zirela Printze Txikiaren historia kontatzeko. Kontatu zuenean, denoi asko gustatu zitzaigun oso polita delako.	
Printze Txikiaren politena ez zen ikusten zena, bere barnean zegoena baizik. Haren ederrena begietara ikusezina zen.	
Printze Txikiak eta pilotuak zortzi egun pasa zituzten elkarrekin, marrazkiak egin zituzten, istorioak kontatu eta zeruan zeuden izarrak begiratzen zituzten.	
Ilundu zuenean, Printze Txikia oinez hasi zen. Urte baten ondoren, bere planetara itzuli behar zuen, baina bere gorputzak gehiegi pisatzen zuen eta lurrean utzi behar zuen.	

**Orain, idatz ezazu kontaera ondo antolatuta.**

# Printze Txikia

2. *Printze Txikiak* beti du zerbait guri erakusteko.

Liburu honetan bizitzako ikaspen eta mezuz betetako esaldiak daude, pertsonen portaerei buruz eta garrantzia ematen diegun gauzei buruz hausnartzeko balio digutenak.

Irakur itzazu esaldi hauek eta azpimarra ezazu gehien hunkitu zaituena:

- «Funtsezkoena ikusezina da begietara.»
- «Zure arrosa besteak baino garrantzitsuago da hartan erabili duzun denboragatik.»
- «Adibidez, zu arratsaldeko lauretan etortzen bazara, hiruetatik aurrera zoriontsu izaten hasiko naiz.»
- «Etxekotu duzunaren arduraduna zara betirako.»
- «Bakoitzari eskatu behar zaio bakoitzak eman dezakeena bakarrik.»



Azpimarratutako esaldia idatz ezazu:

«.....»  
.....»

Azal ezazu zure ustez aurreko esaldiak duen mezua:

**3.** Azeriak Printze Txikiarekin dituen elkarrizketek adiskidetasunaren balio handia erakusten digute. Eztabaida bat egitea proposatzen dizuegu 4/5 pertsonako taldeetan, gai hauen inguruan: adiskidetasun loturak sortzen jakitea, loturak bilatzeko modua, bata bestea edukitzeko modua, etab. Ondoren, taldeko ikuspuntuak ikaskide guztiekin parteka itzazue.

**4.** Denok ez dugu bera ikusten izarrak behatzerakoan. Liburua irakurtzeaz amaitu ondoren, gauera arte itxaron, zerua begira ezazu eta izarrak distiratsuena bila ezazu. Hobe izango da familia eta lagunekin joan bazaitezke. Ondoren, zure sentipenak azal diezazkiezu zure ikaskideei:

Zer ikusi duzu?

Zer pentsatu duzu?

Zer sentitu duzu?

**5.** Idatz ezazu bi lerrotan zure iritzia liburuari buruz:


--

1etik 10era, zein nota merezi duela uste duzu?

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
---	---	---	---	---	---	---	---	---	----

# Printze Txikia

Nori gomendatuko zeniokeen pentsatu eta zergatik esan ezazu.







  
EDITORIAL